

EREÑOTZU

## Umorea, San Antoniotako lehengaia

Etzi hasiko dira San Antonio jaiak Ereñotzun, eta lau egunez luzatuko da festa. Izango da nobedaderik ere; besteak beste, Txikiren umorezko bakarriketa, aurreneko egunean.

BADATOZ Ereñotzuko San Antonio jaiak! Etzi hasiko dira, ostegunarekin, eta igandera arte izango da festa auzoan. Ez dira faltako herri kirolak, pelota partiduak, bertso saioak, dantzaldiak... Baina umorea izango da, jaietako lehengaia. Horretarako, nobedadeen artean, umorezko bakarriketa antolatu dute ostegunean bertan, Txikiren eskutik: «ziur giro ederra sortuko dugula denon artean», dio berak. /4



## 'Maialen' uretaratzeko prest, bosgarrenez

Asteburuan hasiko du traineru denboraldia, ETE Ligan, Pasaian jokatuko diren bi estropadetan. Bosgarren denboraldiaren atarian, aitzakiarik ez dagoela dio Xabier Zabala entrenatzaileak. /7

ASTIGARRAGA

### Odola emateko zita, gaur bertan

Gaur daukate aukera, astigartarrek, odola eman edo organo donante egiteko. Arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara izango da, anbulatorioan. /2

HERNANI

### Erreferendumari buruz, solasaldia

«Hurrengo aroari» hasiera eman go dio Hernaniko Gure Eskuk, eta horretarako, Erreferenduma egizu posible solasaldia antolatu du, etzi. Parte hartuko dute Luke Uribe-Etxebarriak, Ramon Zalok eta Rafa Diezek. /3

HERNANI

### Hernaniren sorrera, «Iruñeko erresuma ginenekoa»

Historia Nabarra de Gipuzkoa liburu aurkeztuko du bihar, Biterin, Beñi Agirre hernaniarrak. 2017an argitaratu zuen Gipuzkoako Historia Nafarra liburuaren itzulpena da, hain justu. Bertan jasotakoak aurreratu dizkigu. /5

KIROLAK

### Lau onenen artean da Astigarraga

Herriartekoaren semifinaletara sailkatu da Astigarraga, eskuz, eta Ataunen kontra jokatuko du, finalerako txartelaren bila. /6

GAUR KRONIKAN

Astigarraga /2

Hernani /2,3,5  
Aire Garbia, Gipuzkoa Argitu, Erdi Aroko Azoka...

Ereñotzu /4

Kirolak /6-8  
Erremontea, pala, igeriketa...

2 mixel haundi

Zorionak Unai!  
Etrekoen portea

PEÑA  
sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko,  
Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

Catalana Occidente  
Aseguruak

BAUTISTA BIURRARENA  
ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani  
943 33 24 40

gse  
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13  
Telfnoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
gse@gseasesores.net

GOIZ-EGUZKI  
TABERNA

ESKU BERRIETAN  
SUKALDE IREKIA  
AFARIAK, EGUNEKO MENUA  
ETA PINTXOAK.  
AUKERA BEGETARIANO  
TERRAZA ZORAGARRIA

Atzieta kalea 10 - Hernani

■ HERNANI UDALTZAINGOA

## ‘La linea invisible’ filmaren grabaketengatik, bide mozketak

*Gaur eta bihar moztuko dute bidea, 08:00etatik 21:00etara, Osiñagako Oianeder eta Loidi baserrien arteko zatian.*

ATZO hasi eta bihar arte, *La linea invisible* filmaren hainbat grabaketa egingo dituzte Hernaniko Osiñaga auzoan. Eta horren eraginez, bidea moztuko dute, Osiñaga bailararen zati batean.

Zehazki, Oianeder eta Loidi baserrian arteko bide zatia da moztuko dutena, eta gaur eta bihar, goizeko 08:00etatik

iluntzeko 21:00etara egingo dira moztetako, Sentido Filmes produktorak eskatu duenez.

Hernaniko Udaltzaingoak jakinarazi du, produktoraren ardura izango dela bide mozketak egitea, eta hainbat baldintza bete beharko dituela: tarte horretan bizi diren herritarren irteera-sarrerak eta premiazko zerbitzuen pasa-

bidea bermatu; bide mozketak seinalizatu eta kontrolatu; eta grabaketetan ari ez direnean, bidea zabalik mantentzen saiatu, besteak beste.

Gainera, zuzen-zuzenean jarri behar du harremanetan, eraginak jasango dituzten etxebizitzetako herritarrekin, bide mozketen egun eta ordu zehatzak jakinarazteko. ■

■ ASTIGARRAGA MUSIKA EGUNA



Makina bat kontzertu eskaini zituzten bi egunetan. Gehienek, Musika Eskolako zapi berdea zeramakiten lepoan.

## Ikasturtea agurtzeko festa borobila, Musika Eskolak

Beste urte batez, Musika Eguna ospatu zuen Norberto Almandoz Musika Eskolak, Astigarragan, joan den asteburuan. Eta aurrekoetan bezala, egun bikoitza izan zen, ostiralean hasi eta larunbatean bukatu zena. Makina bat kalejira eta kontzerturen artean, elkarrekin aritu ziren, musika eskolako adin guztietako ikasleak, bukaera borobila emateko ikasturteari. ■

■ HERNANI MUSIKA

## Doinu nahasketa, Portaletxoko helduen taldeak

Ikasle gaztetxoek bezala, ikasturtea agurtzeko, kontzertu bat eskaini zuen maiatzaren 31n, Hernani Musika Eskolako Portaletxoko helduen ganbara taldeak. Milagrosara eraman zituzten beraien doinuak, eta bost instrumentu ezberdinen doinuen nahasketarekin, goxatu zituzten bertaratuen belarriak. ■



Portaletxoko helduen taldea, Milagrosako kontzertuan.

■ ASTIGARRAGA ODOL EMAILEAK

## Odola emateko zita gaur, astigartarrek

*Arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara izango dute aukera, anbulatorioan bertan.*

GAUR jarri dute odola emateko hitzordua, Astigarragan. Arratsaldean izango da, 18:30etatik 20:30etara, herriko anbulatorioan; eta bertan izango dute aukera, astigartarrek, odola eman edo organo donante egiteko.

«Odola ematea, beste pertsona batzuei bizi aukera bat ematea da. Zuretzat une bat baino ez da, baina gaixo askorentzat bizia izan daiteke», nabarmendu du Astigarragako Odol Emaileen Elkarteak; eta argitu du, donazioak

ez duela egon behar lotuta «tragedia edo larrialdi» egoerekin: «eguneroko ekintza izan behar du, eta ohikoa gure bizitzan. Izan ere, odola ezin da egin».

Horregatik, astigartar guztiak animatu ditu, «ahalegin txiki bat» egin, eta anbulatorioa gerturatzeraz: «bertan egongo gara zuen zain».

Astigarragako Odol Emaileen Elkarteak antolatu du odol-emate saioa, Astigarragako Udalaren babesarekin. ■

■ HERNANI GIPIZKOA ARGITU

## Energia kontsumoari buruzko saioa, gaur

*Gipuzkoa Argitu programako hirugarren tailerra egingo dute, 18:00etan Biterin.*

HIRUGARREN saioa egingo dute gaur, energiaren kontsumoari eta eraginkortasunari buruzko Gipuzkoa Argitu programaren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hernaniko Udalak antolatuta. Biterin izango da hirugarren tailer hori, arratsaldeko 18:00etan hasita, aurreko biak Goiz Eguzkin egin ondoren.

Oraingoan, honakoa izango da gaia: *Eraginkortasun altuko birgaitzea; zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko*. Horrela, herritarren eskura jarriko dituzte, energia-eraginkortasunarekin zerikusia duten irizpide eta eza-gutzak, modu erraz eta ulergarrian. Izan ere, «eraginkortasuna altuko birgaitzeak herritarren

bizi-kalitatean eragiten du», nabarmendu dutenez: «aurrezpen ekonomikoa haundituko da, etxeko energiaren kontsumoa gutxituko delako; eta bertan bizi diren familiek osasunean irabaziko dute, hezetasunak kontrolatuko direlako, kondentsazioak saihestuz eta, ondorioz, patologiak ekidinez».

Tailerrean parte hartzeko, aurrez eman behar zen izena, ekainaren 7a baino lehen.

**Azkeneko tailerra, udazkenean** Programaren barruan, laugarren saio bat ere egingo dute, udazkenean, baina oraindik ez dute data zehaztu. *Energia berritzagarriak zure etxean... posible da!* izango da gaia, azkeneko saioan. ■

■ ASTIGARRAGA ASTIGUNEA

## Ekaineko bigarren saioa, gaur arratsaldean

Hiru saio antolatu ditu Astiguneak, ekainerako; eta horietako bigarrena, gaur arratsaldean egingo dute. Kultur etxean izango da, 16:00etan hasi eta 18:00ak arte. Bertan lantzen dituzte, emakumeek gorputza zein ahotsa indartu eta trebatzeko bideak, banaka eta talde gisa euren egoeraren jabe egiteko. Horretarako, baliatzen dituzte mugimenduak, komunikazio ez bortitza, erlaxazioa eta sormena. Parte hartzeko, izena eman behar da, Udaleko Bertintasun Sailean. Haurren zaintza zerbitzua ere izango da. ■

■ HERNANI GURE ESKU

## Erreferendumari buruz solasaldia etzi, «hurrengo aroari hasiera emateko»

‘Erreferenduma egizu posible’ saioa antolatu du Hernaniko Gure Eskuk, 19:00etan Biterin. Luke Uribe-Etxebarria, Ramon Zallo eta Rafa Diez egongo dira bertan.

ARO berri bati helduko dio Hernaniko Gure Eskuk, Erreferendum lotesle bat aldarrikatzeko helburuarekin. Eta etzi, solasaldia antolatu du, «hurrengo aroari hasiera emateko». Biterin izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita, eta

tsaldeko 19:00etan hasita, eta *Erreferenduma egizu posible* lelopean, parte hartuko dute Luke Uribe-Etxebarria, Rafa Diezek eta Ramon Zallok.

Irati Elizalde aurkeztuko du saioa, eta aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da, nahi dutenentzat.

pen zerbitzua egongo da, nahi dutenentzat.

### Hurrengo pausoen berri ere, solasaldian bertan

Erreferendumari eta autogobernuari buruzko solasaldia-

rekin batera, etziko saioan bertan emango dute hurrengo pausoen berri ere, Hernaniko Gure Eskuk aurreratu duenez. Horrela, jakinaraziko dute zein den, hastera doazen hurrengo aroa. ■

■ HERNANI ERDI AROKO AZOKA

## Erdi Arora bueltan, ostiraletik igandera

Tilosetan eta Plaza Berrin jarriko dituzte Erdi Aroko Azokaren postuak, eta kale animazioa ere izango da, hiru egunez.

BESTE urte batez, 500 urte baino gehiago egingo du atzera Hernanik, Erdi Arora, hiru egunez. Ostiralean hasi eta igandera bitarte, herriko gune historikoan jarriko dute Erdi Aroko Azoka.

Zehazki, Tilosetan eta Plaza Berrin jarriko dituzte postuak, mota guztietakoak, artisauen eskulangintza produktuekin, eta elikagaiekin.

Gainera, kale animazioa ere ez da faltako, hiru eguntan zehar: musika, antzerkia, akrobaziak...

Joan den urtean, 60 postu izan ziren azokan, makina bat tokitatik etorritakoak; eta taberna ere jarri zuten.

**Udaberrira bueltan azoka, udara bukaeran beharrean** Aurreko bi urteotan udara bukaeran egin ondoren, lehengo datara bueltatuko da Erdi Aroko Azoka; udaberrira, hain zuzen ere. Hernani Errotzen elkarteak, Hernaniko Udalak, eta N-KO Soluciones Eléctricas eta Events & Press enpresak antolatu dute. ■



Kale animaziorik ez da faltako, aurtengo Erdi Aroko Azokan ere.

■ HERNANI BILGUNE FEMINISTA

## Autodefentsa feminista tailerra larunbat honetan, «San Joan jaien aurretik»

Hernaniko Bilgune Feministak antolatuta, Biterin egingo dute, goizeko 09:30etatik 13:30etara. Izena eman behar da, aurrez: ‘hernanikotxokofeminista@gmail.com’.

SAN Joan jaiak gerturatzen ari direla eta, larunbat honetarako jarri du hitzordua, Hernaniko Bilgune Feministak: autodefentsa feministen inguruko tailer bat antolatu nahi izan du, «San Joan jaien aurretik».

Izan ere, nabarmendu du: «eraso sexista eta matxistak etengabe eta gure egunerokotan jasaten ditugu, eta jaiak ez dira horren salbuespen». Eta adierazi du, jaiak «gizarte baten antolaketa eta balioak» islatzen dituztela, hain justu.

Hori horrela, larunbat goizetarako antolatu du autodefentsa feminista tailerra, hiru ordu eta erdikoa; 09:30etan hasi, eta 13:00ak arte.

**Izenematea, aldeztu aurretik** Tailerrean parte hartzeko,

hori bai, aldeztu aurretik eman beharko da izena. Horretarako, mezua idatzi behar da, helbide elektronikoa honetara: [hernanikotxokofeminista@gmail.com](mailto:hernanikotxokofeminista@gmail.com).

Edozein kasutan, irekia eta doakoa da saioa. ■

■ HERNANI AIRE GARBIA

## Bilera gaur, batzordeak

Arratsaldeko 19:00etan egingo dute, Biterin.

GAUR jarri du hitzordua, Hernani Aire Garbia taldeak, batzordearen hurrengo bilera egiteko. Biteri kultur etxean elkartuko dira, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Hernaniko airearen kalitatea erekin kezkatuta hasi zen elkar-tzen herritar talde hau, eta ordutik, hainbat bilera egin dituzte, eta baita zenbait ekintza antolatu ere; kontzentrazioak eta hitzaldiak, besteak beste. ■

■ HERNANI SAN JOANAK

### Kantaitaren entsaioa, gaur arratsaldean

Gaur egingo dute bigarren entsaioa, San Joan bezperako Kantaitan parte hartu nahi dutenek. Plazan izango da, arratsaldeko 20:30etan. ■

■ HERNANI BITERI

### Dantza garaikideko ikasleek, emanaldia

Aurreko ostegunean eskaini zuten Biteriko dantza latinoetako ikasleek, kurtso bukaerako emanaldia. Eta gaur, dantza garaikideko ikasleen txanda izango da. Biterin erakutsiko dute ikasitakoa, 20:00etan hasita. ■

■ HERNANI MUSIKA ESKOLA

### Piano kontzertua, gaur Sandiusterrin

Ikasurte bukaerako kontzertuetan murgilduta dago Hernani Musika Eskola; eta gaur izango da hirugarrena, piano ikasleena. Aurrekoak ez bezala, Sandiusterrin izango da gaurkoa, arratsaldeko 18:30etan. Bihar, akordeoi eta txistu ikasleen txanda izango da; eta etzi, saxofoi, klarinete eta flauta ikasleena. Guztiak izango dira, ordu eta toki berean. ■

■ HERNANI TTARLA

### Matrikula egiteko, bigarren aukera

Atzo bezala, gaur ere izango da aukera, matrikula egiteko, datorren ikasurtean Ttarla Dantza Taldean aritzeko. Horretarako, Biterin egongo dira taldeko arduradunak, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. ■

■ EREÑOTZU SAN ANTONIO JAIK

## Udararen iragarle, San Antonioak

*Ekainaren 13tik 16ra bitartean izango dira San Antonio jaiak, giro ederra Ereñotzun.*

ETZI, osteguna, emango zaie hasiera Ereñotzuko San Antonio jaiak. Ekainaren 13tik 16ra bitartean izango dira, ostegunetik igandera, hain zuzen ere. Beroketa gisa, hala ere, pasa den ekainaren 7an, ostiralararekin, XXXIV. Mus Txapelketa jokatu zuten, Ur-Mia elkarrean, gauean.

Jaiaren hasiera, Ozenki abesbatzak emango du, etzi, eguerdiko 12:00etan, suziriak jaurtiz. Jarraian, hainbat ekintza egingo dira; besteak beste, herri kirolak eta bertso saioa. Ostegunari bukaera emateko, iluntzeko 20:00etan afaria egingo

da frontoian.

Ekainaren 14a, ostirala, Txirrita ikastetxeko ikasleen kurtso amaierako jaialdiarekin hasiko da. Eguna amaitzeko, 00:30etan, Guda Dantzak eta DJ DZk girotuko dute gaua. Larunbatean, puzgarriak egongo dira, etxeko txikiak, bola eta toka ere bai, eta bizikleta freestyle erakustaldia. Gauean, Laiotz taldea ariko da, goizeko ordu txikiak arte.

Igandean, goizean goizetik txistulariak. Eta arratsaldean, bertsolariak. Jaiak amaiera emateko, errifaren zozketa egin, eta suziriak jaurtiko dira. ■

### SAN ANTONIO JAIK 2019

#### ETZI, osteguna

**12:00etan**, Ozenki abesbatzak jaiak hasiera emango dio suziriak jaurtiz.

**Jarraian**, Herri Kirolak Ereñotzuko plazan.

- *Harri-jasotzaileak*: Beñat Telleria eta Urna.

- *Aizkolariak*: Iker Vicente eta Ruben Saralegi.

**Ondoren**, bertsolari saioa: Iñaki Zelaia eta Aitor Mendiluze.

**17:00etan**, Ttaria dantza taldeko eta Ereñotzuko dantzarien emanaldia.

**18:00etan hasita**, pelota partiduak:

- *Mutilak eskuz*: Insausti II-Insausti I/Arizmendi-Oiartzabal

- *Neskak palaz*: Mazizior-Kerejeta/Tolaretxipi-Iriondo

**20:00etan**, afaria frontoian norberak etxetik dakarrenekin. Edaria, aulkiak eta mahaiak Jai Batzordeak jarriko ditu.

**Ondoren**, TXIKIren umorezko bakarriketa: *40 urte ta aldapan behera niek!*

#### EKAINAK 14, ostirala

**15:00etan**, Txirrita ikastetxeko ikasleen ikasturte amaierako jaialdia.

**16:30etan**, Haur Jaialdia Katiluzar Guraso Elkarteak antolatuta: Merienda, jolasak, ginkana...

**18:30etan**, Xoxoka eta Ereñotzuko gazteak harri tiran erakustaldia.

**20:30etan**, Maialen Argote eta Irati Irurtzun trikitalarien lehenengo saioa.

**21:00etan**, Herri Afaria frontoian.

**Jarraian**, trikitalarien bigarren saioa.

**00:00etan**, Denok Plazara!

**00:30etan**, Guda Dantza eta ondoren, DJ DZ.

#### EKAINAK 15, larunbata

**11:00etatik 13:00era**, Puzgarriak frontoian.

**16:30etatik 18:00etara**, Bola eta toka. Hernaniko Bola Txapelketaren hasiera.

**18:00etan**, Funbox Factory bizikleta Freestyle erakustaldia futbol zelaian.

**20:00etatik 21:00etara eta 00:30etatik goizaldera arte**, Laiotz taldearekin parranda.

#### EKAINAK 16, igandea

**08:30etan**, Hernaniko txistulariekin diana bailaran barrena.

**11:30etan**, Pelota partiduak:

- *Emakumeak eskuz*: Espinar-Mendizabal/Ruiz de Larramendi-Ruiz de Larramendi

- *Gizonak eskuz*: Murua-Lizeaga/Arrieta-Apezetxea

**12:00etan**, Sagardo Probaketa plazan, Ur-Mia elkarrekin antolatuta. Sagardotegiak: Elutxeta, Iparragirre, Elorabi, Otsua-Enea, Olaizola, Goiko-Lastola eta Larre-Gain.

**16:30etan**, Gipuzkoako Aizkolarien 2.mailako

finalaurrekoa. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatuta, Frontoian. Sarrera: 10 euro.

**19:00etan**, Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Beñat

Gaztelumendi, Unai Agirre eta Miren Amuriza.

**Ondoren**, errifaren zozketa eta jaiaren amaiera suziriak

jaurtiz.

#### ELIZKIZUNAK

- *Etzi, osteguna, San Antonio eguna*: 08:00etan meza; eta 10:30etan, meza nagusia.

- *Ekainak 16, igandea*: 10:00etan, meza nagusia.

#### AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Larunbat gauean zerbitzu berezia izango da.

- HERNANITIK 00:00etan eta 03:00etan (Zinkoeneatik).

- EREÑOTZUTIK 00:30etan, 03:30etan eta 07:00etan.

■ TXIKI '40 URTE ETA ALDAPAN BEHERA NIEK!'

## «Ziur giro ederra sortuko dugula denon artean»

*Umoreak ere izango du bere tarte etzi.*

*Txikiren eskutik, '40 urte eta aldapan behera niek!'*

*bakarriketa izango da Ereñotzun, gauean, afaldu ondoren.*

**SAN Antonio egunean, ostegunean, izango zara Ereñotzun. Zer eramango duzu Ereñotzura? Zer espero behar dute ereñotzuarrek?** Txikiren umorezko bakarriketa berria, *40 urte ta aldapan behera niek!*

Ikusi, entzun, eta parte hartzeko aukera izango du etortzen den orok, publikoaren jarrera eta par egiteko gogo, ikuskizunaren erdia da.

**Eta zer espero duzu zuk ereñotzuarrez?**

Hamazazpi urte daramazkit iada herriz herri Euskal Herriko txoko askotan ibiliz, 350

emanaldi baino gehiago egin ditut, eta beste hainbat txokotan bezala, Ereñotzun ere leku txiki eta euskaldun bat topatzea espero dut, jende jatorrez betea. Ziur giro ederra sortuko dela denon artean.

**40 urtekoak dira zure emanaldiaren ardatz. Zer du adin horrek onerako eta txarrerako?**

Argi dago 40 urteek denok markatzen gaituztela eta izaeran ere bada aldaketa bat. 40 urte betetzearen gauza on eta antizak kontatzen ditut umoretik, izan on edo txar. Esan beharra dut, baita ere, ikusgarri hau, umorezko bakarriketa bat dela eta kontatzen ditudan gauza asko exageratu egiten ditudala, noski.

**Zer gai jorratzen dituzu adinaz gain?**

Adinaz gain, gure belaunaldiko gazteok egiten genituen gauzetaz hitz egiten dut, harrera oso ona duen gaia da. Izan ere, gu *supositorioen* belaunaldikoak gara, Abanderado markako gantzontziloak janzen genituenak, telebistako mandorik

«Publikoaren jarrera eta parra egiteko gogo, xouaren erdia da»

ez genuenak, edo Bomber eta martinsak eramaten genituenak. Horrez gain, beste hainbat gai jorratzen ditut: euskaldunon egunerokoak, izan, parranda, jan eta edana, kirola... eta noski, arrakasta haundia duten Euskal Herriko herriak.

**Horizontzat besterik ez da emanaldia? Hala denek parte-hartzeko modukoa da?**

Denentzat, noski. Bakarriketa hau otsailean estreinatu nuen Donostiako poltsiko jaialdiaren barruan, eta harrera oso ona izan du adin ezberdineko publikoaren artean. Hala ere, bakarriketa berri honek 25 urtetik 60 urte bitarteko artean enkaxatzen du ondoen, baina titulu bat jarri behar nion ta hori bururatu zitzaidan, Huntzaren abesti famatua erabiliz.



Txikiren ikuskizunaz gozatuko dute Ereñotzun.

**Euskaldunok ba al dakigu gure buruaz barre egiten?**

Bai!!! Inoiz ez zait inor haserretu. Euskalduna oso pertsona positiboa da, gustuko du, lagunekin egon eta disfrutatzea.

**Ze-nolako erantzuna izaten duzu emanaldietan?**

Showaren hasiera oso garrantzitsua izaten da, hor hartzen duzulako neurria. Egun ho-

retan dagoen giroa, publikoaren gogo, emanaldia gozatze duen irrika, ta hori neurtuta duzunean, hegan hasi zaitezke, publikoa eta zure artean hegaldi ahaztezin bat bizituz.

Garrantzizkoa da euskerako antzerkia bultzatzea eta ahalik eta txoko gehienetara iristea, euskaraz umorea ere egin daitekeela erakutsi nahi dut. Beraz, aniMIAU ostegunean Ereñotzura!

■ HERNANI BEÑI AGIRRE

## «Jakín behar genuke Hernaniren sorrera eta lehenengo notiziak Iruñeko erresumaosatzen genuenekoak direla»

'Historia Nabarra de Gipuzkoa' liburua aurkeztuko du bihar Beñi Agirre hernaniarrak. Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da, Biteri kultur etxean. Bertan erosi ahal izango da liburua, baita 'Nabarralde.eus'-en ere.

HERNANI Errotzenek antolatuta, *Historia Nabarra de Gipuzkoa. De su origen, conquista y fueros* liburua aurkeztuko du bihar Beñi Agirre hernaniarrak. 2017an argitaratu zuen *Gipuzkoako Historia Nafarra* liburuaren gaztelaniazko bertsioa da, hain zuzen. Arratsaldeko 19:00etan eskainiko du hitzaldia, Biterin. Koldo Martinez Garate idazlea, historialaria eta Nabarraldeko kideak egingo ditu aurkezpen-lanak.

**2017an euskeraz argitaratu ondoren, gaztelaniazko bertsioa argitaratu duzu orain. Nolatan? Nola egin duzue itzulpena?**

Ahaleginak ahalegin eta nire bizitza osoa helduen euskalduntzean eman arren, oraindik euskeraz ez dakien jende asko dago; eta asko dago, euskeraz egin arren historia liburu bat euskeraz irakurtzeko zailtasun haundia duena. Lan osagarritzat hartzen dut nik. Itzulpena Uxua Larramendik egin dit, eta nik, gainbegiratu.

**Bata bestearekin muga egiteaz gain, gipuzkoarrek nafarrekin daukagun lotura aztertu duzu bertan, ezta? Zer-nolako lotura dugu bion artean, eta historian zehar nola garatu da?**

Nola adieraziko genioke hernaniar bati ereñotzukoak gipuzkoarrek direla eta aranokoak, berriz, nafarrak? Biak ala biak hizkuntza bera darabilte, ohitura berberak dituzte, elkarrekin osatzen diuzte familiak... Ez al da jende bera? Zer da muga kontzeptua? Zerbait naturala ala euskaldunak bereizteko kanpotik ezartzen den irudizko marra bat?

Jakin behar genuke Hernaniren sorrera eta lehenengo notiziak Iruñeko erresumaosatzen genuenekoak direla. Jakín, 1.200eko gaztelarren konkistak ekarri zuela muga hori. Baskoen eta nafarren banaketa horrek eragile jakina du. Gaur arte iraun du eta goizeko lanbro zikin baten moduan ezkututzen digute Adarrako ikusmira.


«Euskaldunok izan al dugu inoiz guztiok batu gaituen estatu subirano eta independenterik? Bai, Iruñea-Nafarroakoa».

**Eta egun, harremana nola mantendu da? Zer nolako eragina izan du historiak? Izan ere, diozunez, Gipuzkoako historia ezin da ulertu gainerako euskal lurraldeetatik kanpo...**

Nafarroa, eta Euskal Herria oro har, estatu afera omen da Espainiarentzat. Guretzat ere bai, baina guk ez dugu estatu propiorik. Gaur ezagutzen dugun Gipuzkoa 1212an hasi zen egituratzen, Navas de Tolosako guduaren ondoren, gaztelartutako Lope de Haroko kondeak Durango aldeko guztia Bizkaiari sartu zuenean. Aurretik ez zegoen Gipuzkoarik, Nafarroako erresuma zen hau, tenentzia izeneko barrutietan egituratuta. Gaur ezagutzen ditugun 'probintziak' gaztelarrek eta frantsesek konkistatu eta euren arteko banaketaren emaitza besterik ez dira. Hori jakinda bakarrik uler dezakegu Nafarroa eta Euskal Herria osotasunean.

**Historiaren irakurketa propioa egiten duzula azaldu duzu. Zein izan da zabaldu den irakurketa, eta zertan bereizten da zurearekin?**

Ibarretxe lehendakariak bere izenez ezagutzen den 'plana' Madrilen aurkeztu zuenean, 2005ean, oposizioan zegoen M. Rajoyk zera galdetu zion: «¿puede usted decirme cuando ha habido una comunidad vasca unificada e independiente?». Galderan bertan dago tranpa. Comunidad vasca, baskoak, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak bezala ulertzen delako, haien izenean soilik zijoala-



Beñi Agirre, 'Historia Nabarra de Gipuzkoa' liburuarekin.

ko Ibarretxe lehendakaria. Eta arrazoia zuen Rajoyk, Autonomia Erkidegoa inoiz ez da izan euskaldun guztiok batu gaituen estatu independentea.

Egin dezagun irakurketa beste modu batera: euskaldunok izan al dugu inoiz guztiok batu gaituen estatu subirano eta independenterik? Bai, Iruñea-Nafarroakoa. Gaztela oraindik konderri bat baino ez zenean, eta ez erresuma, Iruñeko erresumak gaur egungo zazpi probintziak baino eremu zabalago batean egituratuta zegoen, gainerako erresumengandik subirano eta independente. Orain, Rajoy jauna, konta iezadazu nola desagerarazi zenuten euskaldunon estatu hori eta Gaztela eta Frantziako koroekin nola ordezkatu zenuten? Liburu honetan, ikuspegi honetatik kontatu nahi izan ditut gertakari

historikoak. Eta jakina, beste historia bat atera zait.

**Gaztelak ezarritako muga administratiboa da herri honek jasandako liskar eta sufrimendu askoren eragilea dela diozu. Zergatik?**

Oraingo Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiaeren arteko muga berria ezartzearen ondorioz, bando gerrak sortu ziren, Ahaide Nagusien arteko borrokak ere deituak. Pentsa nolakoa izango zen muga berri hori Frontera de Malhechores deitzen ziotela, Gaizkileen muga, alegia. Pilar Unzalaren bidez jakín nuen Goizuetako Udal artxibategian jasotzen den dokumentu batean goizuetarrak kexa-gutun bat bidali ziotela Orreagako kanonigoi, non esaten zuten «mugarriak jartzera sartu ziren (Gipuzkoatik) Gaztelako

erregeak Nafarrokoarekin zuen gerra medio, herria suntsitu zutela, eta harekin batera burdina lantzeko bederatziz burdinola erre zituzten».

**Zergatik irakurri behar du hernaniar edo gipuzkoar batek liburu hau? Zer ikasiko du?**

Zer izan garen jakitea beharrezkoa delako gaur garena ulertzeko. Liburu honetan ez da soilik Erdi Aroa jorratzen. Karlistaldiak, Foruen desagertaraztea, Ilustrazioa eta Iraultza frantsesa, Lizarrako 1931ko Estatu baterako Estatutua, ekonomia eta populazioaren migrazioak, Iraultza industriala, etab. ere jorratzen dira. Gaurdaino nola iritsi garen jakitea derrigorrezkoa da etorkizuna diseinatzeko. Ezagutzatik eraiki daiteke proiektu bat, ezegutzatik inoiz ez. ■

■ ASTIGARRAGA-HERNANI ESKU PELOTA

## Astigarraga Herriartekoaren finalerdietara sailkatu da

Final laurdenetan Zestoa 4-2 garaitu eta gero, Ataun izango dute aurkari astigartarrek, eta finalera sailkatzeko aukerak dituzte.

ASTIGARRAGA Herriarteko Txapelketan ibilbide bikaina ari da egiten, eta finalerdietan dago jadanik: final laurdenetan Zestoa kanporatu du, 4-2ko emaitzarekin. Joanekoan 2-1 irabazi zuten, eta abantaila horrekin bidaiatu zuten Zestoara. Buel-takoan ere, emaitza berdina errepikatu zen, 1-2 orainoan, Astigarragaren alde, eta finaletik pauso bakarrera daude. Astigarragan gertatu bezala, kadeteek eta nagusiek irabazi zituzten beraien partidua, eta jubenilek galdu egin zuten. Ondorengoak izan ziren emaitzak: kadeteek 22-4, jubenilek 10-22 eta nagusiek 22-11.

Orain, finalerdia Ataunen aurka jokatuko dituzte, eta badauzkate aukerak, finalera iristeko. Ataundarrek Tolosa kanporatu dute, tanteoarengatik. Hiruna berdindu zuten, baina asko sufritu zuten ataundarrek



Ostiralean jokatu zuen Hernanik kiroldegian.

buel-takoan, eta gertu izan zuten buelta ematea, tolosarrek.

### Azpeitiak Hernani kanporatu du final laurdenetan

Beste finalerdia Azpeitiak eta Azpeitiak jokatuko dute. Azpeitiarrak izan dira, hain zuzen, Hernani kanporatu dutenak. Inongo aukerarik ez zieten

eman azpeitiarrek, eta 6-0 irabazi zuten kanporaketa. Ostiraleko partiduetan, 5-22 galdu zuten Hernanik kadeteetan, 16-22 jubeniletan, eta azkenik, 19-22 nagusien mailan.

Asteburuan jokatu ziren, baita ere, Hernaniko pilota eskolaren txapelketako finalerdia, maila desberdinetan. ■

■ HERNANI ERREMONTEA



Goikoetxea bi herrikideren aurka ariko da larunbateko finalean.

## Txapela ziurtatuta dauka Urnietak

Ansa-Arruarte, Goikoetxea-Aizpururen aurka ariko dira Promozio finalean.

PROMOZIO Txapelketaren finala larunbatean jokatu da eta gauza bat argi dago. Txapela Urnietara joango da bai edo bai, hiru herrikide sailkatu baitira finalera. Ansa II eta Arruarte bikote urnietarra osatzen dute eta Goikoetxea V ere bertakoa da.

Ansa II eta Arruarte, Aldabe eta Larrañaga garaitu zituzten lehendabiziko finalerdian nahiko erraz, 24-35.

Bigarren finalerdian berriaz Juanenea lesionatu egin zen 27garren tantoa egin zenean. Beste tanto bat egin ahal izan zuen eta 28-26 jarri markagailuan aurretik, baina kantxa utzi behar izan zuen sorbaldan min hartuta. Juanenea eta Labaka beraz kanporatuak izan ziren eta Goikoetxea V, urnietarra, eta Aizpuru III sailkatu ziren finalera 28-35 irabazita. ■

■ HERNANI PALA

## Hernani Espainiako txapelketatik kanporatu dute

Arrieta eta Irazustabarrenak galdu egin zuten trinketean Mendillorri Aren aurka.

ARIANE Arrieta eta Amaia Irazustabarrena hernaniarrek gutxiatik galdu zuten Espainiako Trinkete txapelketako finalerdia, gomazko paletan, Iruñeako Mendillorri A taldearen aurka. Mendillorriko trinketean jokatu zen finalerdia eta etxeko taldea pasa da finalera.

Hernaniarrek ligaxkako partidu guztiak irabazi eta gero finalerdia juxtu galdu zuten 2-1. Lehenengo seta 15-10 galdu zuten, bigarren partidua berdindu zuten 12-15 irabazi ondoren eta hirugarren setean erabaki zen partidua. Hor tanto bakarraren aldearekin, 10-9, galdu zuten Arrieta eta Irazustabarrenak finalerako sailkapena ezin lortuz.

Bestetik, Amaia Irazustabarrenak INPNPALAK antolatzen duen Torneo Customeko fina-

lerdia irabazi zuen. Finala asteburuan jokatu du Bizkaia frontoian.

### Euskal Herrikoan, galdu Maitenan kontra

Trinketean Euskal Herriko txapelketan zorte txarra eduki zuten hernaniarrek. Ligaxkako azkeneko partiduan, Gasteizeko Astronomosen, Maitenaren kontra Araine Arrietak min hartu zuen eta erretitaru beharrez aurkitu zen bikote hernaniarra. Emaitza 30-5 izan zen eta laugarren amaitu dute ligaxka bigarrenarekin berdinduta puntutan.

### Topaketak palista gazteenak bildu zituen Tilosetan

Pasa den ostiralean giro bikainarekin ospatu ziren pala eskolako jarduerak. Tilosetan finalak jokatu ziren eta infan-



Topaketa eta partiduei amaiera emateko argazkia atera zuten pala eskolako kide denak elkarrekin.

tiletan Joana eta Alaitzek 25-17 irabazi zuten Laia, Nahia eta Aneren aurka. Alebinetan Intza Arregik 15-10 irabazi zion June Ruizi eta infantiletan, teniseko pelotaz, Garazik lortu zuen garaipena, 15-10 Maialenen

kontra. Aurretik neska alebinen topaketa ospatu zen eta etorritako guztiek saritxoera eman zuten.

Pala eskolan aurten 15 neska ibili dira kiroldegiko pilotalekuan eta topaketan ia denek

parte hartu zuten, falta zirenak preludeko entseguan zeuden.

Jolasak ere egon ziren eta bukaeran barrenean aritu ziren. Familia argazkiak ere atera zituzten, baita saridunak ere. ■

■ HERNANI ARRAUNA



'Maialen' traineruak asteburuan hasiko du ETE liga.

## «Aitzakiarik ez», Maialenek

Prest dago 'Maialen' trainerua. Asteburuan hasiko du liga, «pixkanaka hobetzeko» asmoz.

TRAINERUA osatzea lortu du aurtun ere, Hernaniko Arraun Elkarteak. Emakumezkoen Maialen trainerua asteburuan uretaratuko da ETE ligari hasiera emateko; larunbatean 11:30etan eta igandean, 11:00etan, bietan Pasaian. Pasa den larunbatean aurkeztu zuten taldea.

### Hiru hilabete aurretik

Hernaniarrez gain, Gipuzkoako beste herrietako arraunlariak eta baita Valentzia edota Kataluniakoak ere badira aurtun traineruan. Beteranoena, hala ere, klubean 12 urte daramazkiena, Ainhitze Kalonje da. «Ur-

te osoko lana» izaten dela aitortu zuen, eta denboraldiko helburua ere zehaztu zuen; «lehengo urteko emaitza hobetzea, Kontxan sartzea». Baina baita «disfrutatu eta arraunean ondo egitea» ere.

Xabier Zabala entrenatzaileak «lan txikiak egiteko askotan denbora asko» behar izaten dutela aipatu zuen, baina «tokatzen dela» jakitun, «aitzakiarik ez» dutela irmo adierazi zuen; «ausartak izan eta gogor eutsi behar diogu». Horrela, «txintxo eta gogor, egunerokoan jardun behar» dutela azpimarratu zuen. «Akoplazteko lanak dauzka-

### 'MAIALEN' TRAINERUA

- Itxaso Aranburu.
- Carolina Garcia.
- Ainhitze Kalonje.
- Naroa Lizarreta.
- Nerea Irastorza.
- Maria Miñana.
- Irene Pareja.
- Jone Pastor.
- Maria Salvador.
- Nahia San Argimiro.
- Ariadna Palop.
- Eva Paradedada.
- Garazi Usabiaga.
- Enara Villena.
- Edurne Yarza.
- Gurutze Yarza.
- Estitxu Zabala.
- Olaia Barriuso (patroia).
- Intza Larburu (patroia).
- Xabier Zabala (entrenatzailea).
- Xabier Gurrutxaga (presidentea).

gu, berandu hasten baikara (...). Liga azkar xamar hasten zaigu eta sufritzea tokatuko zaigu pitin bat, baina esperantza galdu gabe, badakigu 3 hilabetetako lana dela, eta hobetzeko denbora daukagula». Uretan erakutsiko dute hori. ■

■ HERNANI IGERIKETA

## Europako errekorra Berlinen, Llopisek

Irailean Londresen egingo den Munduko Txapelketarako prest dago Iñigo Llopis: Berlingo Irekian hiru errekor egin ditu.

PARALINPIKOEN Berlingo Irekian izan da asteburuan Iñigo Llopis igerilari hernaniarra, Espainiako selekzioarekin, eta marka ezin hobekak egin ditu. Irailean Londresen jokatu den Munduko Txapelketarako puntu-puntu dagoela erakutsi du.

Hain zuzen, hiru errekor lortu ditu. Bata, Europako errekorra, 200 metro bizkar proban, 2:27.65eko denborarekin. Beste biak, Espainiako errekorrak; 200 metro libreetan 2:15.06 eginda, eta 400 metro libretan 4:39.26 eginda.

Munduko Serietako azkena izan da proba hau, eta orain, Espainiako Txapelketa eta Munduko Txapelketa prestatzeari ekingo dio. ■



Iñigo Llopisek Europako errekorra lortu du Berlingo Irekian.

Argazkia: @Paralimpicos.

■ HERNANI ZARAUZKO TRIATLOIA



Peru Alfaro 8garren egin du Zarauzko Triatloian

Argazkia: UROLA KOSTAKO HITZA.

## 8garren Peru Alfaro, Zarauzko Triatloian

Hernaniarrak 04:11:59ko denboran egin zituen hiru probak, larunbatean.

ZARAUZKO Triatloian hartu zuen parte Peru Alfaro San Ildefonso triatleta hernaniarrak, larunbatean, eta 8garren egin zuen, ibilbide osoa 4 ordu, 11 minutu eta 59 segundutan bukatuta.

Aurrena, Getariatik Zarautzera 2,9 kilometro egin behar izan zituzten igerian, parte-hartzaileek.

Segidan, 78 kilometro egin zituzten bizikletan. Horretarako, bi buelta eman zizkieten aurrena 26 kilometroko zirkuituari. Meagako mendatea igo

behar izan zuten zati horretan, besteak beste, batezbesteko %3,5eko pikoa zuen aldapak, 3,9 kilometroko distantzian. Segidan, buelta bat eman zuten 25 kilometroko zirkuituari, Zarautzik Oriora bidean, Aiako Harresirako igoerarekin; %18rainokoa zen hau.

Bukatzeke, 21 kilometro egin zituzten korrika; zirkuiturako lotura tarte baten ondoren, 6,2 kilometroko ibilbideari hiru itzuli eman behar izan zizkieten, Plazan bukatzeko. ■

■ HERNANI ATLETISMOA

### Atletismoa probatzeko, ate irekiak

Hernani eta Astigarraga, nahiz inguruko herrietako gaztetxoei dei egin die Atletismo Klubak, kirola probatzeko ate irekietan parte hartzera. 2006 eta 2008an jaiotako neska-mutilei zuzenduta egingo dira, ekainaren 17, 19 eta 21ean, 18:00etan; altuera jauzia eta pisu jaurtiketa, luzeera jauzia eta disko jaurtiketa, eta hesien teknika eta jabalina jaurtiketa probatu ahal izango dira hurrenez hurren. ■

■ HERNANI AZERI BILA

### Haur eta gazteek ere izen-ematea irekita, Azeri Bila lasterketarako

Ekainaren 22an egingo da aurtun, Azeri Bila lasterketa. Arratsaldeko 18:30etan hasiko da, eta izen-ematea irekita dago interneten, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) eta [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) webguneetan. Hori, helduen kasuan. Izan ere, aurretik haur eta gazteen lasterketak ere egingo dira, eta hauek ere izena eman behar dute. Arratsaldeko 17:30etan Haur Hezkuntzako lasterketa egingo da (150 metro); 17:40etan, Lehen Hezkuntzako 1go eta 2garren mailakoena (300 metro); 17:50etan 3garren eta 4garren mailakoena (600 metro); 18:00etan 5garren eta 6garren mailakoena (1.200 metro); 18:10etan DBHko 1go eta 2garren mailakoena (2.400 metro); eta 18:30etan 3garren eta 4garren mailakoena, helduekin batera, baina ibilbide erdikoa (4.500 m). Hauek guztiak ere izena eman behar dute, eta dortsala hartu, doan, Atletismo Klubaren bulegoan, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 18:30etatik 20:00etara. Haur Hezkuntzakoek, hala ere, ez dute dortsalik behar. ■

**EGURALDIA GAUR** Eguraldi petrala; euria denera iritsiko da, haizea zakartu egingo da eta freskotik joango da eguna. Zaparrada mardulenak goizean botako ditu, eta puntualki ekaitzak ere bai. **Min.10° / Max.16°**

**BIHAR** Zerbobait hobetuz; lainoak saretuago eta tenperatura zerbobait gorago. Goizaldean oraindik lainoguneak nagusituko dira eta baliteke kostaldean zaparrada bikiren bat botatzea. **Min.10° / Max.18°** (euskalmet)



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** Gazez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Tontorrez tontor

Mendiriz Mendiko kideek hilabete egingo duten irteera baten inguruko xehetasunez osatutako atala.

# Nafarroa eta Arabako mugen artean ibiliko dira, Entzia eta Urbasako mendizerretan barrena

Andoindik pasa eta Legunbe igoko dute Mendiriz Mendik antolatutako hurrengo ibilaldian, ekainaren 30ean. 13 kilometroko ibilaldia da eta leku ikusgarriak pasako dituzte ur jauzi, iturburu eta pagadien barrena.



### MENDIRIZ MENDI

EKAINAREN 30ean Mendiriz Mendik antolatzen duen ibilaldian muga artean ibiliko dira. Oraingoan Nafarroa eta Araba artean, Entzia eta Urbasa mendizerren artean. Andoin-Legunbe izango da ibilaldia eta Legunbeko gainera iritsiko dira. Igoko duten mendi honetan dago inguru hauetakoa Araba eta Nafarroaren arteko muga. Muga hori antzinatek dator, baina 1555garren urteko dokumentu batean idatzita jasotzen da lehenengo aldiz. Bertan ere ezartzen da Entzia eta Urbasa mendizerren arteko muga.

Legunbe mendiak ipar aldera, Araiako bailara aldera, amildegiz izugarriak erakusten ditu eta hego aldera aldiz, magal leunak. Mendiak bi gailur ditu. Bien artean Legunbeko Haitzuloa izenarekin ezagutzen den zuloa aurkituko dute. Iraia aldera irekitzen den leiho naturala da. Zulo haundi batez eta beste txiki batez osatuta dago. Bi gailurretatik mendebaldekoa Arabako lurretan kokatuta dago eta ekialdekoa Araba eta Nafarroan. Mugen zehaztasunarekin beti gatazkak egon zirenez, 1928 urtean bi probintzien arteko muga zehaztuko zuen harritzko hesia eraiki zen. Hortik



Legunbe gaina 1.113 metrora dago eta mendilerro ederrak ikusi daitezke.

geroztik, garbi geratzen da zer den Araba eta zer Nafarroa.

### Toberiaseko iturburu ezagutuko dute eta ur-jauzi ikusgarriak ere bai

Ibilbidean Toberiaseko iturburu ezagutuko dute. Andoinetik irten eta ehun metroko desnibela igo ondoren aurkitutzen da. Bat batean lurretik sortzen den ur-emari erraldoia da. Bailararen beste aldean, Arian, ematen den antzeko iturburu

da, baina kasu honetan, Aitzkorriko urak kanporatu beharrean, Entziako sistema karstikoa jasotzen dituen urak kanporatzen ditu. Ur-emaria nahiko haundia denez behera doan heinean ur-jauziak eta forma bitxiak eratzen ditu bere bidean. Benetan ikusgarria da, pena merezi du ezagutzeak.

### Ibilbide zoragarria

Andoin herritik pasatzen den erreka eskuintatik doan

pista hartu behar da. Zertxobait aurrerago zubi batetik erreka zeharkatu behar da. Igotzen jarraitu eta berehala hesi metaliko batekin egingo dute topo. Hesia pasa ondoren bidea bitan banatzen da. Ibi-

laldi honetan ezkerrekoa jarraituko dute. Berehala Toberiatik datorren ur-emaria ikusiko dugu. Bere ertzetik gora egin behar da iturburura iritsi arte.

Iturria bisitatu ondoren beste aldera pasa eta zertxobait jaitsi behar da pista bat aurkitu arte. Pistari jarraituz gora egin behar da Andoin lepora iritsi arte. Pista zati hau oso polita da baso barrutik egiten delako eta harriztatutako zati batzuk dituelako. Lepoan pista utzi eta ezkerrean, gando aldera, egin behar da. Mugarri jarraituz berehala gara Bigate gailurrean. Beste tarte batean gandorrari jarraitu behar zaio Legunbe gailurrera iristeko. Lepotik gailurrerako igoera nahiko leuna da eta eroso egiten da pagoen artean. Jaitsiera igoera baino erosoagoa da. Gailurretik, jaitsiera leun batetik, Urbasako kanpina eramango gaituen pista-zaia jaitsi behar da. Azken zati hau ere basoaren itzalpean egiten da. II

### IRAGARKI MERKEAK

Aseguruen munduan lan egin nahi duzu? Bidali zure C.V.a: [casoco@mapfre.com](mailto:casoco@mapfre.com) helbide elektronikora.

Galizian villa bat alokagai uztaile eta abuztuan. Deitu: 688 605 452

Almazena salgai Hernaniko Lizeaga auzoan (Peña Otaño atzean). 40 m<sup>2</sup>, 4 m altuera, entreplanta, trastelekua eta bulegoa jarrita. WC ere bai. Deitu: 680 136 066

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

### ANDOIN-LEGUNBE (1.113m) - URBASAKO KANPIGNA

- **Non kokatzen da:** Nafarroa eta Arabako mugen artean.
- **Distantzia:** 13 kilometro.
- **Denbora:** 4 ordu.
- **Desnibela:** 550 metro inguru gorantz eta 300 metro inguru beherantz.
- **Zailtasuna:** Zailtasun berezirik gabekoa. Ibilbide luzea.
- **Beharrezko materiala:** Mendiko material arrunta.
- **Mendiriz Mendik** ekainaren 30ean egingo du irteera hau.
- **Oharra** elkarteko egutegian Baio mendia egingo dela agertzen da, baina ibilbidea aldatu egin da.



Toberias de Andoinen ur-emari ikusgarriak daude.

### KRONIKAK INPRIMATZEKO LANGILEA BEHAR DA, UDARAKO ORDEZKAPENA EGITEKO

Bidali zure Curriculum Vitae-a, ekainaren 21era arte:

kronika@kronika.eus  
Dobera Euskara Elkartea  
Larramendi 11 behea  
20.120 HERNANI

**ESKATZEN DA:**  
- Kobeko karneta eta kobea izatea  
- Iniziatiba eta enpatia  
**EZ DA ESPERIENTZIARIK BEHAR**